

**ETXEKO TRATU TXARRAK  
ETA SEXU INDARKERIA JASATEN  
DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA  
HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN  
ARTEKO II. AKORDIOA**



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

**GIDALIBURUA**

Erakunde Autonomiaduna


Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**19**



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
GASTEIZ 2009

**E**TXEKO TRATU TXARRAK  
ETA SEXU INDARKERIA  
JASATEN DITUZTEN  
EMAKUMEEI HARRERA  
HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN  
ARTEKO II. AKORDIOA

**IZENBURUA:** "Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa"

**EDITOREA ETA EGILEA:** EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz

**MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:** ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua

**DISEINU GRAFIKOA:** Ana Badiola, Isabel Madinabeitia, Ana Rincón

**ILUSTRATZAILEA:** Ibon Garagarza

**DATA:** 2009ko martxo

**ALE-KOPURUA:** 5.000

**DESKRIBATZAILEAK:** Tratu txarrak, sexu indarkeria, genero indarkeria, Autonomi administrazioa, Foru administrazioa, Tokiko administrazioa, ekintza positiboak

**INPRIMAKETA:** ZURE. Estudios gráficos

**ISBN:** 84-89630-18-6 978-84-89630-18-5

**LEGE GORDAILUA:** BI-968-09

**Salneurria: 5 euro**

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	7
ZIOEN ADIERAZPENA ETA PARTEHARTZAILEEN KONPROMISOAK .....	13
JARDUERA PROTOKOLOA .....	23
1. Printzipio orokorrak .....	25
2. Osasun arloko jarduna .....	26
3. Esparru polizialeko jarduna .....	32
4. Esparru judizialeko jarduna .....	37
5. Abokatuen elkargoen jarduna .....	40
6. Gizarte Zerbitzuen arloko jarduna .....	41
7. Heziketaren arloko jarduna .....	45
ERANSKINAK .....	47
I. Eranskina: Epaitegira bidaltzeko idazki ereduak (Osasun esparrua) .....	49
II. Eranskina: Lesioei buruzko mediku partearen ereduak .....	50
III. Eranskina: Epaitegira bidaltzeko idazki ereduak (Gizarte Zerbitzuen eremua) .....	53
IV. Eranskina: Tratu txar kasuetan informazioa biltzeko ereduak (Gizarte Zerbitzuen eremua) .....	54
V. Eranskina: Sexu indarkeria kasuetan informazioa biltzeko ereduak (Gizarte Zerbitzuen eremua) .....	63
VI. Eranskina: Helbide eta telefono interesgarriak .....	70





**A**URKEZPENA







Gure gizarteak XXI. mendean aurre egin beharreko gaitz handienetakoa da emakumeen aurkako indarkeria. Indarkeria mota hori drama pertsonal eta kolektibo izugarria da, baita sekulako arazo politiko eta soziala ere. Hori jakinda, emakumeen aurkako indarkeria saihestea eta behin betiko desagerraraztea lehentasunezko helburua da Eusko Jaurlaritzarentzat eta euskal erakunde guztientzat. Horrela ezarri zen Emakundek landu eta Eusko Jaurlaritzak 2006an onartu zuen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean. Hain zuzen ere, dokumentu hori izan da legegintzaldi honetan euskal administrazio publikoek berdintasunaren arloan jarraitu duten ibilbide orria.

Argi dugu emakumeen aurkako indarkeria egiturazko arazoa dela eta alderdi ugari dituela, baita, ondorioz, behin betiko desager dadin instituzioen esku-hartze dibertsifikatua beharrezkoa dela. Hori dela-eta, urte hauetan guztietan euskal administrazio publikoen lanak eremu ugarietako jarduerak sustatzea izan du xede: plangintza, ikerketa, sentsibilizazioa, aurrea hartzea, heziketa, informazioa eta aholkularitza, laguntza eta gizarte babesa, instituzioen arteko koordinazioa, legegintza eta abar.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoa arlo honetako programak eta baliabideak sortzerako orduan betidanik aitzindaria izan dela nabarmendu nahi dut.

Zalantzarik gabe, orain artean egindako lana handia izan da. Aldiz, askoz ere handiagoa da oraindik ere egiteko dagoena. Horregatik, Eusko Jaurlaritzatik eta gainerako erakundeetatik adoretu jarraitu behar dugu lanean gaitz hau desagerrarazteko, eta, horretarako, gero eta giza baliabide eta baliabide material gehiago erabili behar ditugu.

Lan horren emaitza da argitalpen honetan jasotako erakundeen arteko akordioa ere.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, koordinazioa funtsezkoa da. Arlo honetan lan egiten duten guztiek, osasun zerbitzuetako langileak, poliziak, epaileak, gizarte zerbitzuetako langileak, abokatuak, hezitzaileak... diren kontuan hartu gabe, argi eta garbi izan behar dute horrelako kasuen aurrean nola jokatu behar duten eta gainerako erakundeekin nola koordinatu behar diren. Hori da indarkeria pairatzen duten emakumeei babes eraginkorra, arreta integrala eta kalitatezkoa bermatzeko modu bakarra. Era berean, hainbat profesional eta erakundek esku hartu behar izateak biktimei sortzen dizkien eragozpenak saihesteko modua ere bada.

Akordio berri horrekin beste urrats bat eman nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko bidean, ezinbestean atzetik beste urrats asko izan behar dituen urratsa.

Amaitu aurretik, hurrengo ere esan nahiko nuke: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza, eta horren adierazpen bortitzena den indarkeria matxista, oso fenomeno korapilatsua da, bere erroak gure gizarte antolakuntza ereduaren oinarri diren egitura politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan dituena. Ildo horretatik, berdintasun ez hori desagerraraztea legetatik eta erabaki politikoetatik harago dago, gizarte osoaren inplikazioa eskatzen baitu. Hori dela-eta, ahalegin guztiak gutxi dira eta inor ez dago soberan lan honetan. Guztion esku dago gizakien arteko harremanak justizian, berdintasunean eta biolentzia ezean oinarrituko diren kultura eta gizarte sortzea, eta bereziki, gizonen esku dago. Izan ere, gizonak dira, hein handi batean, indarkeria harreman modu bezala erabiltzen dutenak.

Gasteiz, 2009ko otsailaren 3a.



JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria



Berdintasuna sustatzeko erakundea izanik, 1988an jaio zenean Emakundek izan zuen lehen erronketako bat emakumeen aurkako indarkeriari erantzun instituzional egokia emateko modua antolatzea izan zen. Garai hartan, ia ez zegoen bitartekorik indarkeria modu horri aurre egiteko. Izan ere, emakumeen aurkako indarkeria ez zen benetan dena moduan ulertzen: hau da, lehen mailako arazo sozial eta politikoa.

Ordutik, hein handi batean Emakundek legearen esparruan zein emakumeen eta gizonen berdintasun planen esparruan egindako sustapen lanari esker, euskal administrazioek emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta biktimak laguntzeko jarduera ugari egin dituzte, betiere beren eskumenen barruan.

Emakunderen 20 urteko ibilbidean, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko esku-hartze publikoan izandako mugarri nagusietakoa, zalantzarik gabe, 2001ean sinatutako *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioa* izan da. Izan ere, gure herriko erakunde nagusiek izenpetutako akordio hori inflexio-puntua izan zen gure erkidegoan tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei ematen zaien arretaren eta babesaren kalitate eta eraginkortasunari dagokionez.

Horren erakusle, akordioaren esparruan egindako lanak erakunde sinatzaile bakoitzak bere esku-hartze eremuan garatutako jarduerak akordioaren iraunaldian nabarmen hazi izana ekarri du. Horrez gain, erakundeen arteko jarduera ugari jarri dira indarrean, adibidez urteko jardueraren planak eta haien ebaluazio txostenak, sentsibilizazio kanpainak, dibulgaziozko material ugari, hezkuntza planak, profesionalentzako gidak eta jardueraren protokoloak, biktimentzako segurtasun planak eta abar.


Orain, bigarren akordio honekin, 2001ean izenpetutako erakundeen arteko lehen akordioaren esparruan egindako lan emankorrari jarraipena eman nahi zaio, betiere egindako lanean are gehiago sakonduz.

Horretarako, lehen akordioaren edukiak lege aldaketetara zein azken urte hauetan gertatutako bestelako aldaketetara egokitu dira. Hain zuzen ere, honako hauek dira egindako aldaketa nagusiak: egun dauden bitarteko juridiko berrien (babes aginduak, emakumeen aurkako indarkeria kasuak epaitzeko auzitegi bereziak...) erreferentziak sartzea; hezkuntza arloari dagokion esku-hartze eremu berria sartzea ikastetxeetan gerta daitezkeen edo/eta ikastetxeetan antzeman daitezkeen tratu txar edo sexu indarkeria egoerei erantzuteko; eta profesionalek jar-

duera protokoloak aplikatzeko orduan kontuan izan behar dituzten jokaera irizpide orokor bartzuk sartzea. Printzipio horiek honako hauek dira: laguntza integral eta pertsonalizatua; berdintasuna; prebentzioa; adin txikikoen defentsa; jabetasuna eta normalizazioa; eraginkortasuna eta bizkortasuna; eta gutxieneko biktimizazioa.

Ziur gaude akordio berri hau izenpetzeak orain arte egindako lana sendotzeko zein erakundeen artean are eta lankidetzaren egonkor eta sakonagoa lortzeko balioko duela, betiere gaur eguneko gaitz handienetako bati, emakumeen aurkako indarkeriari, aurre egiteko helburua ardatz hartuta.

Gasteiz, 2009ko otsailaren 3a.

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and lines, characteristic of a cursive or stylized script.

IZASKUN MOYUA PINILLOS

Emakunde / Emakumearen Euskal  
Erakunde Zuzendaria



# Z

**IOEN ADIERAZPENA  
ETA PARTEHARTZAILEEN  
KONPROMISOAK**



# **ETXeko TRATU TXARRAK ETA SEXU INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOA**

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**

Gasteizen, 2009ko otsailaren .3an

### **BILDU DIRA**

Juan José Ibarretxe Markuartu jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezkatzuz.

Xabier Agirre López jauna, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Jose Luis Bilbao Eguren jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Markel Olano Arrese jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

María Ángeles Montes Álvaro andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia ordezkatzuz.

Margarita Uria Etxebarria andrea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia ordezkatzuz.

Jokin Bildarratz Sorron jauna, Eudela, Euskadiko Udalen Elkarteordezkatzuz.

Juana Balmaseda Ripero andrea, Abokatzaren Euskal Kontseilua ordezkatzuz.

Enrique Tellería Arratibel jauna, Euskal Kontseilu Medikoa ordezkatzuz.

### **AZALDU DUTE**

I.- Forma ezberdinak dituen emakumeen aurkako indarkeria emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dugu eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa nabarmena eta onartezina da.

Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri, gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek, emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu.

Emakumeen aurkako indarkeria ezberdintasun horren beste isla bat da, ziurrenera larriena dena, baina horrez gain, gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna da, ezberdintasun egoerari eutsi eta iraunarazi egiten baitio.

II.- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria emakumeen aurka adin, gizarte talde, kultura eta herrialde guztietan gertatzen diren indarkeriaren bi adierazpen zehatz dira. Gizartearen arazoak dira, oso larriak, herritarrengan eragin handia baitute, sortzen dituzten ondorio fisiko eta psikikoak –bai zuzenean jasaten dituzten emakumeengan, bai zuzenean edo zeharka jasaten dituzten adingabeengan– oso larriak direlako, eta gizarte guztiarentzat kostu sozial eta ekonomiko handia eragiten dutelako.

Eraso horiek, batez ere familia harremanetan edo harreman afektiboan testuinguruan gertatzen dira eta tradizionalki jarrera horien aurrean gizarteak tolerantzia handia erakutsi du. Ezaugarri horiek guztiek, askotan, biktimak babesik gabeko egoeran egotea eragiten dute. Horregatik, funtsezkoa da diziplina anitzeko esku hartze instituzional koordinatua abian jartzea, biktima horiei babes eta arreta osoa bermatzeko, arlo ezberdinetan: osasun arloan, polizialean, judizialean eta sozialean.

III.- Hori horrela, 2001eko urriaren 18an Emakumearen Euskal Erakundeak (Emakunde) bultzatuta, gure erkidegoan *Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasok Jasaten dituzten Emakumei Laguntza Hobe*a Emateko Erakunde arteko Akordioa sinatu zuten gai hori jorratzen duten erakundeetako agintari gorenak. Akordio horren helburua gai honetan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea da, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jarraibide homogeneoak ezartzea, biktimei arreta hobe eskaintzen eta erasotzaileak epailearen esku jartzen laguntzeko.

Halaber, akordio horri jarraiki, eta hartutako konpromisoen jarraipena egiteko eta konpromiso horiek sustatzeko, bi organo sortu ziren: Jarraipen Batzordea eta Erakundeen arteko Talde Teknikoa (hitzarmenaren erakunde sinatzaileetako ordezkari politikoek eta teknikoek osatzen dituzte).

Hitzarmenari esker eta, bereziki, aipatutako erakundeen lanaren poderioz, erakunde sinatzaileek ekintza gehiago egin dituzte beren jarduera-esparruetan, eta jarduera ugari gauzatu dituzte elkarrekin; esaterako, urteko ekintza planak, horien balioespen txostenak, sentsibilizazio kanpainak, informazio liburuxkak, trebakuntza planak, profesionalentzako gidak eta jarduera protokoloak, biktimentzako segurtasun planak, etab.

Labur esanda, erakundeen arteko akordioak ekarri du esku hartze publikoa areagotzea eta erakundeen arteko lankidetzaren estuagoa eta egonkorragoa izatea, botere publiko guztien eta gizarte osoaren konpromisoa eta lana funtsezkoa diren alor honetan.



IV.- Dena den, erakundeen arteko akordioa sinatu zenetik, erakunde publikoek garrantzi handiko esku-hartzeak egin dituzte gai horren inguruan. Hala, nabarmentzekoa da hurrengo lege hauek onartu izana: etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duen uztaillaren 31ko 27/2003 Legea, genero indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa (Estatuan), eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoan). Azken horrek, bere 62. artikuluan, emakumeen aurkako tratu txarrei eta eraso sexualei era eraginkorren eta koordinatuan aurre egiteko eta biktimei arreta integrala eta kalitatezkoa ematea bermatzeko erakundeen arteko elkarlan akordioak sustatzeko obligazioa ezartzen dio EAEko administrazioari. Horrez gain, legedi berriari egokitzeko xedearekin, arau berriak eta garrantzi handiko beste bitarteko juridiko batzuk ere sortu dira; adibidez Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren babesarekin sortutako genero indarkeriaren aurrean babes osoa emateko neurrien legearen eraginkortasunerako koordinazio-protokoloa eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua, eta Sail horrek berak eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluak emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta eraso sexualen biktimei berehalako laguntza juridikoa emateko sinatutako hitzarmena.

Hain zuzen ere, erakundeen arteko 2001eko urriaren 18ko akordioaren edukia aipatutako lege aldaketek eragindako egoera berrietara egokitzeko sinatu dugu erakundeen arteko II. akordio hau, bai eta ordutik sortutako protokoloak, elkarlanerako hitzarmenak eta beste bitarteko juridiko batzuk osatzeko ere. Akordio hau marko edo esparru modukoa izango da, esku-hartze eremuen arabera garatu, zehaztu eta egokitu egin ahal izango dena.

Adierazitako guztia dela eta, parte hartzen duten alderdiek, dagokien ordezkariarekin, zera

## HITZARTU DUTE

**Lehena.-** Akordio honen helburua dela Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen lan egiten duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, horrela, emakume horiei babes eta arreta osoa bermatzeko arlo ezberdinetan: osasun arloan, polizialean, judizialean eta gizarte arloan.

**Bigarrena.-** Akordioa sinatzen duten erakundeek beren jarduera akordio honen barruan sartu den jarduera protokoloari egokitzeko konpromisoa hartzen dute emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta/edo sexu indarkeriazko egoeretatik etorritako arau-hauste penalak gertatzen diren kasuetan; hori guztia, dagozkien eskumenak eta batez ere epaileen independentzia ahalik eta gehien errespetatuz.

Akordio honi dagokionez, emakumeen aurkako etxeko tratu txartzat hartuko da oraingo edo lehengo familia harreman eta/edo harreman afektibo batean emakume nerabe edo heldu baten aurkako indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala edo beste mota bateko indarkeria erabil-tzea, emakumea menderatzeko, azpiratzeko eta erasotzaileak harremanean agintea eta bote-rea izateko. Tratu txartzat hartuko da horrek guztiak emakumearengan sufrimendua edo kalte fisiko edo psikikoa sortzen badu.

Akordio honi dagokionez, emakumearen aurkako sexu indarkeriatzat hartuko da emaku-mearen baliozko adostasunik gabe emakume nerabe edo heldu baten aurka egindako edozein sexu jokabide. Adostasunik ez du baliorik izango baldin eta 13 urte baino gutxiagoko adinga-be batek edota zentzu murrizta duen batek emana bada, buruko ezgaitasuna izatea gehiegike-riak egiteko baliatzen bada, edota biktimaren askatasuna mugatzen duen ageriko nagusitasun egoera batez baliatutako adostasuna dagoen kasuetan; hori guztia, legeria penalean aurreiku-sitako baldintzetan.

**Hirugarrena.-** Jarduera protokoloan ezarritako neurriak eta jarraibideak modu eraginko-rran aplikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Presidentetzak jarduera protokoloaren edukiak etxeko tratu txar eta sexu indarkeri egoeretatik sortutako arau-hauste penalak pertsegitzen lan egiten duten epaile guztien artean zabalduko ditu.

**Laugarrena.-** Jarduera protokoloan ezarritako neurriak eta jarraibideak modu eraginkorre-an aplikatzen direla bermatzeko, akordioa sinatzen duten gainerako erakundeek honako jar-duerak egingo dituzte, bakoitzak bere eskumenen arloan:

a) Jarduera protokoloaren edukiak akordioa sinatzen duten erakundeen menpekoak diren edo erakunde horiek osatzen dituzten eta etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktimei arreta eskaintzen lan egiten duten profesional guztien artean banatzea. Horretarako, kasu ba-koitzerako egokien jotzen diren bitartekoak erabiliko dira: akordioen, jarraibideen, zirkularren, liburuxken eta abarren edukiak igortzea.

b) Etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren kasuetan zer egin jakiteko trebakuntza planak prestatu eta abian jartzea, batez ere erreferentzia eginez jarduera protokoloan agertzen diren jarraibideei. Plan horiek akordioa sinatzen duten erakunde bakoitzaren menpekoak diren edo erakunde horiek osatzen dituzten eta aipatutako jokabideen biktimei arreta eskaintzen lan egi-ten duten profesionali zuzenduta daude.

c) Akordio honetako edukiak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko beharrez-koak diren giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak bideratzea.

**Bosgarrena.-** Akordioa sinatzen duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta akordio honetako edukiak gauzatzearen inguruko jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Jarraipen Batzorde bat sortu da eta honako funtzioak izango ditu:

a) Akordioa sinatzen duten erakundeei koordinazioa hobetzeko eta jarduera protokoloan jasota dauden neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko komenigarriak direla irizten diren ekintzak proposatzea.

b) Akordioa sinatzen duten erakundeek jarduerak elkarrekin egiteko proposamenak egitea eta baita ere, proposamenak egitea hainbat erakunderi eragiten dien esku hartze eta jarduerak koordinatzeko, betiere akordio honen xede den gaiari dagokionez.

c) Jarduera protokoloaren edukiak akordioa indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen edo egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea.

d) Bere kabuz edota arau juridiko baten babespean egindako eskariz, akordioaren helburuarekin zerikusia duten txostenak egitea.

e) Akordioaren xedearekin lotutako akordioak adostea.

f) Jarduera protokoloan ezarritako jarraibideak ez betetzearen inguruko kexak jasotzea, eta hala dagokionean, kexa horiei irtenbidea emateko neurriak proposatzea.

g) Erakundeen arteko akordio honen edukiak nola aplikatzen diren analizatzea, eta bereziki, ekitaldi bakoitzaren amaieran akordioaren edukiak zenbateraino bete diren adierazten duen jarraipen eta ebaluazio txosten bat prestatu eta onartzea. Txosten horretan aipatuko dira, alde batetik, akordioa sinatzen duen erakunde bakoitzak jarduera protokoloan ezarritako neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean betetzen direla bermatzeko eta biktimei ematen zaien arreta eta babesa hobetzeko egindako jarduerak, eta bestetik, protokoloa erakunde bakoitzaren esku hartze eremuan zenbateraino betetzen den adierazten duen balorazioa. Horretarako, erakunde bakoitzak Jarraipen Batzordeko idazkaritzara bere jarduera eremuari dagokion jarraipen eta ebaluazio txosten bat igorriko du batzordea bildu baino hilabete lehenago.

h) Bere jarduera eremuan dagozkien beste edozein funtzio.

Jarraipen Batzordearen buru izango da Emakundeko zuzendaria, eta Batzordean sailburorde edo antzeko kategoria izango dute honako erakundeek:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak.
- Osasun arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Herritarren segurtasun arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Justizia arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Gizarte zerbitzuen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Gizarte bazterketaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Lan arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.

- Etxebizitzaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Hezkuntzaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Arabako Foru Aldundiak.
- Bizkaiko Foru Aldundiak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Euskadiko Udalen Elkarateak (Eudel).
- Abokatutzaren Euskal Kontseiluak.
- Euskal Kontseilu Medikoak.

Aipatutakoez gainera, batzordean parte hartuko du Emakundeko Idazkaritza Nagusiko titularra den pertsonak eta batzordeko idazkari lanak egingo ditu. Pertsona hori ez dagoenean edo gaixo dagoenean, idazkari lanak batzordekide gazteenak egingo ditu. Horrez gain, Emakundeko idazkari nagusiak ordezkatzeko du erakundeko zuzendaria hura ez dagoenean, edo gaixo dagoenean.

Batzordeak osoko bilkuratan jardungo du; eta azpibatzerdeetan ere bai, gai espezifikoak aztertzeko. Osoko bilkuran aukeratuko dira azpibatzerdeak osatuko dituzten pertsonak. Osoko bilkuretan eta azpibatzerdeetan parte hartu ahal izango dute, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe, adituek eta akordio honen helburuak eragiten dien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarteetako kideek.

Batzordeak osoko bilkura gutxienez urtean bitan egingo du, ohiko deialdian. Horrez gain, ezohiko bilerak ere egin ahal izango dituzte, batzordeburuak edo partaideen bi herenak eskatuz gero. Kasu horretan, eskaera idatziz egin beharko da landu nahi diren gaien arrazoia ere azalduz. Eskabidea jaso ondorengo hamabost egunetarako egin beharko du batzordeburuak ezohiko osoko bilkurarako deia. Gai zerrendak eskatu diren puntuak jasoko ditu nahitaez; hala ere, batzordeburuak beste puntu batzuk ere sartu ahal izango ditu.

Batzordeak, bai osoko bilkuretan, bai azpibatzerdeetan ere, baliozko osaera izango du bertako kideen gehiengo osoa bertaratzen denean. Horien artean, derrigorrez egon beharko du presidentek edo, presidentea ez badago, hura ordezkatzeko duenak eta idazkariak.

Batzordeak erabakiak bertaratzen diren kideen gehiengo soil bidez hartuko ditu. Berdinketarik egonez gero, presidentearen botoa izango da erabakigarria.

Jarraipen Batzordeko kideek beren funtzioak behar bezala betetzeko beharrezko duten laguntza teknikoa emateko, erakundearen arteko talde tekniko sortuko da. Talde hori osatuko dute akordio hau sinatzen duten erakundeetatik horretarako izendatutako teknikariek. Emakunde ordezkatzeko duen pertsonaren koordinaziopean, erakundearen arteko talde teknikoa gutxienez urtean bitan bilduko da proposamenak egiteko. Proposamen horiek Jarraipen Batzordeak aztertu eta hala badagokie onartuko ditu.

Emakundek laguntza teknikoa eta administratiboa eskainiko du Jarraipen Batzordeak eta erakundeen arteko talde teknikoak behar bezala funtziona dezaten.

**Seigarrena.-** Akordio hau indarrean sartzeko 2001eko urriaren 18an sinatutako erakunde-en arteko akordioaren indarraldia amaitzea dakar.

**Zazpigarrena.-** Akordio honek sinatzen den egunetik 2009ko abenduaren 31 arte izango ditu ondorioak, eta isilbidez luzatuko da, alderdietakoren batek luzatzeari espresuki uko egiten ez badio behintzat.

Eta aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, idazpuruan aipatutako toki eta egunean izenpetzen dute akordio hau.

---

Juan José Ibarretxe Markuartu jauna  
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

---

Xabier Agirre López jauna  
Arabako diputatu nagusia

---

Jose Luis Bilbao Eguren jauna  
Bizkaiko diputatu nagusia

---

Markel Olano Arrese jauna  
Gipuzkoako diputatu nagusia

---

María Ángeles Montes Álvaro andrea  
Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia

---

Margarita Uria Etxebarria andrea  
Botere Judizialaren Kontseilu  
Nagusiaren kidea

---

Jokin Bildarratz Sorron jauna  
Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen  
presidentea

---

Juana Balmaseda Ripero andrea  
Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren  
kidea

---

Enrique Tellería Arratibel jauna  
Euskal Kontseilu Medikuariaren presidentea



# J ARDUERA PROTOKOLOA





# 1. PRINTZIO OROKORRAK

Jarduera protokolo honetan jasotako jarraibideak betetzeko orduan, inplikaturako profesio-nalek eta erakundeek honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan:

a) Laguntza osoa eta pertsonalizatua. Protokolo honetan aipaturako indarkeriaren biktima diren emakumeei eta horien menpekoak diren pertsonen ematen zaien arretak indarkeria ego- era bakoitzetik sortzen diren behar ezberdinak hartuko ditu barnean eta, horretarako, kasu ba- koitzean gertatzen diren egoera pertsonalen eta sozialen arabera egokienak diren zerbitzuak eta prestazioak jarriko zaizkie eskura.

b) Berdintasuna. Arreta biktima guztiei eskaintzen zaiela bermatu beharko da, honako ezaugarriengatik inor baztertu gabe: egoera zibila, sexu orientazioa, adina, sinesmen edo ide- ologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, ezgai- tasun fisiko, psikiko edo sensorialak, edota beste edozein izaera pertsonal edo sozial. Era be- rean, beharrezko neurriak hartuko dira beren egoera pertsonal eta sozialarengatik laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituzten biktimen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko, be- reziki, ezgaitasunak dituzten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein dela ere beraien egoera administratiboa, eskubide horiek izan ditzaten.

Bereziki, ezgaitasunak dituzten emakumeek dauden informazio eta baliabideak erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira (laguntzak garraioa erabiltzeko, lagun egiteko, keinu hizkuntzako interpreteak, braillez idatzitako dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.). Emakume atzeritarrek hizkuntzaren aldetik izan ditzaketen eragozpenak gainditzeko edo arintzeko neurriak ere hartuko dira. Emakume horiei gogoraziko zaie erroldatzeko eskaera egitea zein garrantzitsua den babes sozialaren sareko oinarritzko zerbitzuak jaso ahal izateko, eta gomendatuko zaie, etorkinei ahol- kuak eta orientabidea eskaintzeko Heldu zerbitzuarekin harremanetan jar daitezela.

c) Prebentzioa. Jasotako jarraibide multzoa aplikatuko da biktimen aurkako indarkeria ego- erarik errepikatu ez dadin. Biktimak izan daitezke bai emakumeak, bai beren kargu dituzten umeak eta nerabeak edo beraiekin bizi diren eta mendekotasuna duten pertsona helduak.

d) Adingabeen interesen defentsa. Jarduera protokoloa aplikatzeko garaian, biktimek be- ren kargu dituzten adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko. Beti kontuan hartu beharko da umeen eta nerabeen interes gorena, haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak xedatzen duen bezala.

e) Jabekuntza eta normalizazioa. Kasu bakoitzerako neurri egokiak hartzeko garaian, indar- keraren biktima diren emakumeek autonomia eta bizimodu normalizatua izan dezaten ahale- gina egin beharko da.

f) Eraginkortasuna eta arintasuna. Protokolo honek biltzen dituen jarraibideak aplikatzeko, bermatu beharko da antolaketa eraginkorra eta arina, horrelako egoeretan ohikoa izaten den urgentziak hala eskatuta berehalakotasunarekin jokatzeko.

g) Ahalik eta biktimizazio txikiena. Protokolo honetan aipatzen den indarkeria jasan duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ahal den neurrian ekidin egingo da eta, hortaz, biktimek profesionalek eta erakundeek esku hartzearen ondorioz jasaten dituzten enbarazuak ahalik eta gehien murriztuko dira.

Hori horrela, protokolo honetan aurreikusitako arreta eskaintzeko jarraibideak eta bideak betetzea eta inplikaturako erakunde ezberdinak koordinatzea profesionalen ardura izango da; biktimek ez dute ardura hori izan behar.

## **2. OSASUN ARLOKO JARDUNA**

Osasun arloko langileek tratu txarren edo sexu indarkeriaren biktima izan eta osasun zentro batera jo duen pertsona baten aurrean duten jokabidea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren osasun protokoloan ezarritakoaren arabera izango da, bai lehen mailako arretako kontsultetan, kontsulta espezializatuetan edo larrialdi zerbitzuetan, bai alor pribatuan edo publikoan.

### **HELBURUAK**

Osasun protokoloaren helburua da EAEn jarduteko jarraibide komunak ezartzea, etxeko tratu txarren, sexu eraso edo gehiegikerien biktima izan eta osasun zentro batera joaten diren emakumeek osasun arreta osoa ziurtatua izan dezaten.

Osasun eta gizarte mailan eta maila judizialean arreta osoa eskaintzeko, osasun arloko langileei erabaki eta prozeduren zuhaitz-diagrama bat eman zaie. Erabaki eta prozedura horiek ahalbidetuko dute, batetik, biktimaren osasuna berreskuratzea eta eskura dauden baliabide sozialez baliatzea, eta bestetik, kasu bakoitzean egokiak diren auzitegiko eta legezko jarduerak egitea.

## JARRAIBIDEAK

Osasun arloko langileek kasu bakoitzari dagokion jarraibideari jarraituko diote eta beti kontu handiz ibiliko dira emakumearen intimitatea eta konfidentzialtasuna bermatzeko neurriak hartuz (1).

### ETXEKO TRATU TXARRAK GERTATZEN DIRENERAKO JARRAIBIDEAK

#### A) AGERIKOAK DIREN LESIO FISIKO EDO PSIKIKO AKUTUAK SORTZEN DITUEN TRATU TXARREN AURREAN NOLA JOKATU

1. Osasun laguntza emango da, dagokion jarduera terapeutikoen planari ekinez. Sexu eraso edo gehiegikeria gertatuko balitz, beherago azalduko dugun bezala jokatu, auzitegiko medikuari deituz.

2. Laguntza emateaz amaitu eta, hala behar denean, dagokion tratamendua jarri ondoren, protokolo honen II. eranskinean agertzen den lesioen partearen eredia bete beharko da (2).

Lesioen parteak honako atal hauek izango ditu:

- Biktimaren datu pertsonalak (izena, adina, sexua, helbidea,...).
- Laguntza jasotzeko beharra arrazoitzeko gertakarien azalpena biktimaren deklarazioaren arabera (erasoa gertatu den data, ordua eta lekua, erasotzailea nor den baldin badaki eta tratu txar fisiko edo psikiko mota, edo biak).
  - Lesioekin zerikusia duten aurrekari pertsonalak.
  - Azterketa fisikoa (lesioen deskripzioa: forma, tamaina edo dimentsioak, kokapena eta kolorearen arlo deskriptiboak; argazkiak hartzea ere gomendagarria da, betiere biktimaren alde zuzeneko baimenarekin).
    - Une horretan duen egoera emozionala.
    - Azterketa osagarria, horrelakorik egin bada.
    - Diagnostikoa.

---

(1) Komenigarria litzateke osasun zentro guztiek, eta bereziki ospitaleetako larrialdietako zerbitzuek, egoera horietan daudenak artatzeko areto bat izatea eta horrela, ahalik eta konfidentzialtasun eta intimitate maila handiena bermatuko litzateke.

(2) Eredu hori aplikatu behar da EAEko osasun arlo guztian eta osasun zentroetako zuzendaritzako organoek onartuak dituzten historia klinikoetan erabili ohi diren ereduaren artean egon beharko du.

- Tratamendua.
- Jarduera plana eta oharrak, biktima kasu bakoitzean nora bidali den zehaztuz (lehen mailako arretara; ospitale batera, ospitalera dezaten; Gizarte Zerbitzuetara edota Biktimari Laguntzeko Zerbitzura).

3. Lesioen partea betetakoan, biktimari irakurriko zaio, eta ahalik eta lasterren emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegira ala guardiako epaitegira bidaliko da, protokolo honen I. eranskinean datorren eredu erabiliz (3).

Lesioen partearen eta «bidalketa idazkiaren» kopia bana igorriko zaizkio tratatu txarrak jasan dituen pertsonari, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen duenean izan ezik; horrelakoetan, konfiantza duen norbait izendatzeko esango zaio, hark dokumentuak jaso ditzan.

Historia klinikoan, lesioen partearen eta «bidalketa idazkiaren» kopia bana gorde beharko da.

4. Laguntza emateko lehenengo jarduera larrialdietako zerbitzuek edo arreta espezializatu-ko zerbitzuek egin badute, lehen aipatutakoaz gain, aurrerantzean artatuko duen medikuari jarraipen egokia egiteko mediku txostena eman beharko zaio biktimari.

5. Tratatu txarren biktimari eskura dituen neurri sozial eta babes neurriei buruzko aholkuak emango zaizkio osasun zentroko bertako baliabideen bidez (Ospitaleko Zerbitzu Soziala) edo, hala dagokionean, Gizarte Zerbitzuetako edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko profesionalekin berehala harremanetan jartzen lagunduko zaio (4).

6. Azkenik, emakumearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako benetako arriskurik bago, poliziaren presentzia eskatuko da SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentrora, dago-kion Ertzaintzaren polizia-etxera edo udaltzaingora deituta.

---

(3) Jakinarazpena premiazkoa bada, epaitegira faxez bidaliko da. Gainerako kasuetan postaz bidal daiteke.

(4) Dokumentu honetako laguntza emateko baliabideei dagokien atalean agertzen dira laguntza behar denerako telefono zenbakiak eta helbideak. Komenigarria litzateke zenbaki eta helbide horiek larrialdietako zerbitzuetan osasun zentroetan agerian egotea.

## B) AGERIKO LESIORIK SORTZEN EZ DUTEN TRATU TXAR FISIKO ETA PSIKIKOEN AURREAN NOLA JOKATU

Osasun arloko langileek pertsona bat tratu txarren biktima izan daitekeenaren susmoa due-  
nean edo hori pentsarazteko aztarnak aurkitzen dituenean, tratu txarrak gertatu ote diren  
baieztatu edo aukera hori baztertu beharko dute. Horregatik, garrantzitsua da osasun arloko  
langileek pertsona batek tratu txarrak jasaten dituela pentsarazten duten zantzuak eta sinto-  
mak zein izan daitezkeen jakitea, eta kontsultan adi egotea kasu horiek identifikatzeko (5).

Beharrezkoa da elkarrizketa klinikoa egoera erraztuko duen konfiantza giroan egitea.

1. Emakumeak tratu txarrak jasotzen dituela onartzen badu, azterketa zehatza egin beharko  
zaio, izan litzakeen lesioak antzemateko eta bere emozio egoera baloratzeko. Zer azterketa eta  
zertarako egingo zaizkion jakinarazi beharko zaio.

Biktimak gertatutakoa salatzerik eta babes agindua eskatzerik nahi ez badu, zera azalduko  
zaio, salatzerik eta agindua eskatzerik animatzearen: salaketa jartzea, eskubidea ez ezik, jasa-  
ten ari den harreman bortitzarekin amaitzeko eta Justizia Administrazioak dituen babes meka-  
nismoak eskuratzeko modua dela (erasotzailearen urruntze agindua, poliziaren babesa, aitak  
semearekiko edo alabarekiko dituen eskubideak bertan behera uztea, etxebizitzaren erabilpe-  
na, elikadura pentsioa eta abar). Era berean, profesionalak legez gertatutakoa epaitegiei jaki-  
naraztera derrigortuta daudela azalduko zaio biktimari.

2. Biktimak tratu txarrak jasaten ari dela onartzen ez badu eta susmoak ondo oinarrituta  
daudela ziurtatzeko behar beste frogarik ez badago, historia klinikoa zantzuak eta esku-har-  
tzea erregistratuko dira, arreta berezia eskainiko zaie antzemandako arazo fisikoei/psikikoei/so-  
zialei eta jarraipen bisitaldiak egiteko aukera eskainiko da.

---

(5) Etxeko tratu txarren biktimak diren emakume ia guztiak indarkeria jasaten hasi eta handik urte betera joaten dira  
osasun zentrora. Horregatik, osasun arloaren lana funtsezkoa da biktimak goiz sumatu eta identifikatzeko.

## SEXU ERASOAK EDO GEHIEGIKERIAK GERTATZEN DIRENERAKO JARRAIBIDEAK

### A) SEXU ERASOA EDO GEHIEGIKERIA GERTATU BERRI DENEAN ZER EGIN (72 ORDU BAINO GUTXIAGO (6))

1. Sexu gehiegikeria edo erasoa gertatu berria bada (72 ordu baino gutxiago), biktima gertuen dagoen ospitalera bidaliko da ahalik eta lasterren (7).

2. Ospitaleak, kasu guztietan, dagokion barruti judizialeko auzitegiko medikuari deituko dio (8) eta medikua, dagokion baimena eskuratu ondoren, ospitalera joango da. Biktimaren bizia arriskuan edo egoera larrian ez badago behintzat, medikua bertaratu arte itxarongo da (9).

Ospitaleko medikuaren funtzioa biktimari laguntzea izango da beti, eta auzitegiko medikuarena, berriz, delitua ikertzea (lesio motak, lagin biologiko eta ez biologikoak jasotzea...).

Ahal den heinean, biktimari egingo diren ekintzen berri eman eta horiek egiteko onespena eskatuko zaio.

3. Behin esku-hartze sanitarioa eta auzitegiekin lotutako esku-hartzea amaituta eta, hala behar denean, dagokion tratamendua jarrita, protokolo honen II. eranskinean agertzen den lesioen partearen eredia bete beharko da (10).

Lesioen parteak honako atal hauek izango ditu:

- Biktimaren datu pertsonalak (izena, adina, sexua, helbidea,...).
- Laguntza jasotzeko beharra arrazoitzeko gertakarien azalpena biktimaren deklarazioaren arabera (erasoa gertatu den data, ordua eta lekua, erasotzailea nor den hura ezagutzen den kasuetan).

---

(6) Denbora tarte hori ez da esanahi hertsian ulertu behar; baliteke muga hori zabaltzea eskatzen duten egoerak gertatzea.

(7) Oso garrantzitsua da ez garbitzea eta arropak ez aldatzea. Felaziorik egon bada, ahal den neurrian ekidin egin behar da ospitalean azterketa egin baino lehen biktimak ezer jatea edo edatea. Horrek ahalbidetuko du erasotzailearen froga biologikoak izatea.

(8) Harreman urgente hori errazte aldera, ezinbestekoa da profesional horien telefono zenbakia agerian eta eguneratuta egotea.

(9) Zain egon behar den tarte horretan, biktimaren ondoan egon behar da une oro, eta egoera leuntzen lagundu.

(10) Eredu hori aplikatu behar da EAEko osasun arlo guztian eta osasun zentroetako zuzendaritzako organoek onartuak dituzten historia klinikoetan erabili ohi diren ereduaren artean egon beharko du.

- Lesioekin zerikusia duten aurrekari pertsonalak.
- Azterketa fisikoa (lesioen deskripzioa: forma, tamaina edo dimentsioak, kokapena eta kolorearen arlo deskriptiboak; argazkiak hartzea ere gomendagarria da, betiere biktimaren alde aurreko baimenarekin).

- Azterketa ginekologikoa.
- Une horretan duen egoera emozionala.
- Azterketa osagarria, horrelakorik egin bada.
- Diagnostikoa.
- Tratamendua.
- Jarduera plana eta oharrak, biktima kasu bakoitzean nora bidaltzen den zehaztuz (lehen mailako arretara; ospitale batera, ospitalera dezaten; Gizarte Zerbitzuetara edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzura).

4. Lesioen parte bat betetakoan, biktimari irakurriko zaio, eta ahalik eta lasterren emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegira ala guardiako epaitegira bidaliko da, protokolo honen I. eranskinean datorren eredia erabiliz (11).

Lesioen partearen eta bidalketa idazkiaren kopia bana igorriko zaizkio erasoak jasan duen pertsonari, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen duenean izan ezik; horrelakorik, konfiantza duen norbait izendatzeko esango zaio, hark dokumentuak jaso ditzan.

Historia klinikoan gorde behar da lesioen partearen eta «bidalketa idazkiaren» kopia bana.

5. Lehenengo arreta larrialdietako zerbitzuek edo arreta espezializatuko zerbitzuek eskaini badute, lehen aipatutakoak gain, aurrerantzean artatuko duen medikuari ospitalean agindutako tratamenduaren jarraipen egokia egitea ahalbidetuko dion mediku txostena emango zaio biktimari.

6. Azkenik, kontsulta amaitu baino lehen, tratatu txarren biktimari eskura dituen neurri sozial eta babes neurriei buruzko aholkuak emango zaizkio osasun zentroko bertako baliabideen bidez (Ospitaleko Zerbitzu Soziala), edo hala dagokionean, Gizarte Zerbitzuetako edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko profesionalarekin berehala harremanetan jartzen lagunduko zaio (12).

---

(11) Jakinarazpena premiazkoa bada, epaitegira faxez bidaliko da. Gainerako kasuetan postaz bidal daiteke.

(12) Dokumentu honetako VI. eranskinean datoz laguntza behar denerako telefono zenbakiak eta helbideak. Komenigarria litzateke zenbaki eta helbide horiek larrialdietako zerbitzuetan eta osasun zentroetan agerian egotea.

## B) SEXU ERASO EDO GEHIEGIKERIA GERTATU BERRIA EZ DENEAN ZER EGIN (72 ORDU BAINO GEHIAGO (13))

1. Horrelakoetan izaten diren kalte eta lesio fisiko eta psikikoak arintzen lagundu, dagokion jarduera terapeutikoen plana abian jarritz.

2. Laguntza emateko ekintzak burutu eta, hala behar denean, dagokion tratamendua jarri ondoren, protokolo honen II. eranskinean agertzen den lesioen partearen eredia beteko da (14), gertakaria izan eta 72 ordu igaro ez diren kasuetarako adierazitako jarraibideen arabera.

## 3. ESPARRU POLIZIALEKO JARDUNA

Akordio honetan jasotako delituen biktimen aurrean (15), oro har, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Segurtasun sailburuordeak onartutako Sexu erasoak (3. zk) eta etxeko tratu txarrak (48. zk) gertatzen direnerako jardueri buruzko argibideetan ezarritako printzipio eta jarraibideetara egokituko dute beren jarduera Ertzaintzak eta Udaltzaingoak. Horiez gain, kon-tuan izan beharko da Kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko 51. argibidea. Bertan, etxeko indarkeria eta genero indarkeria kasuetarako jardueren prozesua agertzen da (16).

---

(13) Denbora tarte hori ez da muga hertsiki bezala ulertu behar; gertakaria izan eta 72 ordu baino gehiago igaro eta, oraindik, kasuaren ezaugarriak direla eta, lagin biologikoak eskuratzeko aukera egon daitezkeenaren susmoa badago, sexu eraso edo gehiegikeria gertatu berri denetan jarraitzen den prozedura berari jarraitu beharko zaio.

(14) Eredu hori aplikatu behar da EAEko osasun arlo guztian eta osasun zentroetako zuzendaritzako organoek onartuak dituzten historia klinikoetan erabili ohi diren ereduaren artean egon beharko du.

(15) Beste polizia indar batzuekin koordinatzeko mekanismoei dagokionez, etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren arazoa Tokiko Koordinazio Batzordeetan aztertu ostean, funtsean bi motako akordio edo ondorio lortu dira:

1. Kasuaren ezagutza lehendabizi izan duen polizia indarrak kasuaren ardura hartzeko akordioak, sor daitezkeen larrialdiei erantzuteko informazio trukaketarekin osatuta.

2. Ardura beti Ertzaintzarena dela ezartzen duten akordio zehatzak edo isilbidezkoak, kasurik larrienen (babes neurriak dituztenak, arrisku maila berezia dutenak...) informazio trukaketarekin osatuta, batez ere kasu bakoitzean sor daitezkeen larrialdiei erantzuteko.

(16) Biktimak babesteko neurriak eta zuhurtzia neurriak era eraginkorrean betetzeari eskaintzen dizkio antolakuntza arloan zein arlo operatiboan egiten dituen ahaleginetako asko Ertzaintzak; hori, gainera, ez da uneoro legea betetzeko behar saihestezinagatik bakarrik egiten, Ertzaintzak etxeko indarkeria kasuei aurre hartzeko eta horiei erantzuna emateko paper oso garrantzitsua joka dezakeela oso garbi dugulako baizik. Horren erakusle dira bai biktimek egiten zaizkien inkestetan jasotako arretaren inguruan adierazten dituzten poztasun adierazleak, bai Etxeko eta Genero Indarkeriako Prozesuak eskuratutako AENOR enpresaren ziurtagiria –prozesuak UNE-EN ISO 9001-2000 arauak ezarritako baldintzak betetzen ditu eta Ertzaintzak dituen 25 polizia-etxeetan ezarrita dago–.



## PREBENTZIOZKO JARDUERAK

Prebentziozko jarduerak, lehenik, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak gertatzea galaraziko duten jarduerak praktikan jartzera bideratu behar dira, bai indarkeriazko jokabideak antzemateko, bai horien prebentziorako jarduerak egiteko ere.

## URGENTZIARI ARRETA ESKAINTZEA

Biktimak hala eskatutakoan, edo beste pertsona edo erakunde batzuek salaketa jartzen dutenean, polizia biktima dagoen etxera edo tokira joango da han egongo da beharrezkoa den arte.

Biktimak lesioak baditu, horiek txikiak izan arren, edota lesioak agerikoak ez izanagatik egon litezkeenaren susmoa badago, biktimari dagokion mediku zerbitzura lagunduko zaio eta lesioen parte eska dezala aholkatuko zaio, ondoren parte hori salaketa jartzeko unean aurkeztu ahal izateko.

Gertatu berria diren sexu eraso edo gehiegikerien kasuan, gertueneko ospitaleko larrialdietako zerbitzura eramango da biktima. Eraso Bilboko barruti judizialean gertatu bada, eta lesio larriak dauden larrialdietako kasuetan izan ezik, biktima Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko Zerbitzu Klinikora ere bidali ahal izango da, bertan 24 orduko zaintza egoten baita. Biktimari ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esango zaio, eta aho bidezko erasorik gertatu bada, ez jan eta edateko ere adieraziko zaio. Ospitalera eramaten badute, polizia taldeak ziurtatuko du auzitegiko medikua ospitalera joateko eskaera egin dutela, mediku azterketa egin eta laginak hartzeko. Era berean, auzitegiko medikuari gertakariari buruz eskura dauden datu guztien berri emango zaio.

Biktimari ez zaio aitorpenik hartuko osasun arloko langileek azterketa egin eta bere behar pertsonalak asetzen diren arte.

Biktimak bere ardurapean adingaberen bat badu, zaindu ezin duen tarte horretan, berak izendatutako pertsonaren edo familiako beste norbaiten esku utziko da adingabea; hori posible ez bada, hitzartutako zerbitzu publikoekin (Foru Aldundiko adingabeen zerbitzuak, udal zerbitzuak...) harremanetan jarri beharko da, horiek adingabearen kargu egin daitezten. Adingabea biktimatzat jotzen bada edo babesgabe dagoela uste bada, txosten bat idatziko da Aldundiko dagokion gizarte zerbitzuari zuzenduta.

## **SALAKETA JASOTZEA**

Hasteko, biktimari salaketa jartzeak dakartzan ondorioak zeintzuk diren azalduko zaio. Sexu askatasunaren aurkako delituen kasuan ere, salaketa jartzearen beharra azalduko zaio, ustezko erasotzaileari bide judizialek pertsegitu ahal izateko.

Era berean, babes agindu bat eskatzeko aukera duela jakinaraziko saio, baita salaketa jartzeko zein babes eskaera eskatzeko doako aholkularitza emango dion ofiziko abokatu bat izateko eskubidea ere –etxeko indarkeria kasuetako zein sexu erasoetako biktimei aholkularitza ematen espezializatutako abokatu bat izango da–. Biktima aholkularitza jasotzeko prest baldin badago, polizia horretarako behar diren kudeaketak egingo ditu eta biktimari jakinaraziko dio abokatu polizia etxera noiz iristea aurreikusita dagoen.

Polizia etxean babesteko aginduaren eskaera egiten denean, gertakariak frogatzeko urgentziatzko atestaturia edo txostena egingo da eta delitu eta falta jakin batzuk azkar eta berehala epaitzeko prozeduraren arabera izapidetuko da atestatu edo txosten hori.

Salaketaren harrera egiterakoan, biktimaren egoera emozional berezia kontuan hartuko da, betiere segurtasun giro bat sortzen saiatuz. Salaketaren harrera, ahal dela emakumezko batek egingo du, leku eroso eta pribatuan, ahal dela inork edo ezerk eten gabe eta biktimaren intimitatea gordeko duen egoeran. Horrez gain, biktimak erasotzailearekin inongo harremanik ez izateko neurriak hartuko dira.

Salaketa eta/edo deklarazioa jasotzean, ikerketa egiteko beharrezkoak diren datuak eskuratu dira, biktimaren egoera pertsonalarekin eta salatuarekin duen harremanarekin zerikusia duten alderdiak, erasoaren eta indarkeri historialaren inguruko alderdiak, zuzeneko lekukoak edo erreferentzia egiten zaienak, etab.

Nolanahi ere, biktima deklaratzeko moduan ez dagoela sumatzen bada, deklarazioa eten egingo da beharrezkoa den guztietan, edota atzeratu ere egin ahal izango da. Salaketa jartzeaz amaitutakoan, biktimari kopia bat emango zaio.

## **BIKTIMARENTZAKO LAGUNTZA**

Biktimak bere segurtasuna arriskuan ikusten badu, edota hala eskatzen badu, lagundu egingo zaio bai berari eta, beharrezkoa bada, baita bere ardurapean dituen seme-alaba adingabeei ere, berak proposatutako helbidera edo beste tokiren batera (senitartekoren baten etxera, lagunenera, etab.) Era berean, beharrezkoa bada, bere etxera ere lagunduko zaio arropa eta premiazko etxeko gaiak har ditzan.

Biktima larrialdietarako osasun zerbitzura, gizarte zerbitzuetara, etxera, etab. eraman behar den kasuetan, bereizgarririk gabeko ibilgailu ofizialean eramango da.

Biktimari arreta eskaintzerakoan eta suerta litezkeen lekualdaketetan, gutxienez emakumezko agente batek parte hartzeko ahalegina egingo da.

## **INFORMAZIOA EMATEA ETA GIZARTE ZERBITZUETARA BIDERATZEA**

Biktimari idatziz jakinaraziko zaio bere eskubideak zeintzuk diren eta eskura dauden baliabideak zeintzuk diren.

Biktimari kautelazko babes neurriak eskatzeko aukeraren inguruko informazioa emango zaio; besteak beste, erasotzaileari debekatzea leku jakin batean, auzo, herri, probintzia edo beste toki erakunde batean edo autonomia erkidegoan biziitzea edo hara joatea. (Prozedura Kriminaleko Legearen 13. eta 544 bis artikulua). Biktimari, horrez gain, informazioa emango zaio honakoen inguruan: Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikuluan aurreikusitako babesteko agindua eskatzeko aukera, ofizioko eskatzeko aukera, doako laguntza juridikoa eskatzeko aukera eta eskura dauden diru-laguntzak.

Gainera, biktimari jakinaraziko zaio arazo mota hauek dituztenei arreta espezializatua eskaintzeko eskura dauden baliabideak zeintzuk diren (abegi-etxeak, laguntza juridikoa eta psikologikoa jasotzeko programak...). Nolanahi ere, biktimari ematen zaion informazioa gora behera, oso garrantzitsua izango da kasua zerbitzu hauetakoren batera bideratzen saiatzea: Oinarrizko Gizarte Zerbitzura, Berehalako Harrera Zerbitzura, Larrialdietarako Gizarte Zerbitzura, Berdintasunerako Zerbitzura edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzura.

## **IKERKETA ETA ATESTATUA EGITEA**

Arau-hauste penala gertatu dela eta egilearen ardura zein den egiaztatzeko bitartekoak egiteko beharrezkoak diren *in situ* egiaztapen jarduerak eta ikerketa ahalik eta bizkorren eta zehatzen egingo dira: zuzeneko ikuskapena, lekukoak, biktimari argazkiak ateratzea bere baime-narekin, etab.

Biktimari ikertutako gertakariekin lotura izan dezaketen ondorio eta elementu guztien berri emateak duen garrantzia jakinaraziko zaio, gertatutakoa argitzeko helburuarekin.

Kautelazko eta prebentziozko neurri gisa, ustezko erasotzailea titularra den lizentzia eta baimenei buruzko informazioa bilduko da, neurri egokiak hartu ahal izateko.

Lehenago biktimarekin edo ustezko erasotzailearekin zerikusia izandako poliziaren esku hartzerik eta/edo salaketarik ba ote dagoen egiaztatuko da eta ustezko erasotzailearen aurrekariak ere ikertuko dira. Gainera, Agintaritzak Judizialak lehenago kasuan inplikaturako pertsonen zerikusia duen babes neurriak ezarri ote duen ere egiaztatuko da.

Atestatuari erantsiko zaio epaitegiari informazioa emateko beharrezkoa den informazio guztia: aurrekariak, ikuskaritza eginbidea, Babesteko Aginduen eskaera, egoerak duen arriskua baloratzeko eginbidea, deklarazioak, etab.

## **ARRISKUAREN BALORAZIOA ETA BABES NEURRIAK**

Biktimaren arrisku egoerak aholkatzen duenean, eta arriskuaren inguruan egindako balorazioaren emaitzak kontuan hartuta, biktima babesteko neurri zehatzak hartuko dira. Besteak beste, honako neurri hauek hartu ahal izango dira:

— Erasotzaileari zaintza eta jarraipena egitea eta hurbiltasun maila detektatzeko teknologia sistemak organo judizialen zerbitzura erabiltzea baldin eta modu eraginkorren erabil badaitezke, eta hori guztia, erasotzaileari jartzen zaizkion aldentzeko neurri judizialak betetzen direla bermatzeko helburuarekin.

— Errutinen inguruko prebentzio jarduerak, telefono bidezko egiaztapenak eta ausazko bisitaldiak, lekualdaketak, konpainia egitea eta babesteko neurri zehatzak.

— Biktimak etengabe babestea.

Dena den, etxean tratatu txarrak jasaten dituzten emakume guztiei honako babes neurriak eskainiko zaizkie, espresuki uko egiten ez badie behintzat:

— Norbere burua babesteari buruzko trebakuntza eta materialak.

— Biktimaren eta polizia zerbitzuen artean eguneko 24 orduetan komunikazioa ahalbidetzen duten gailuak.

Sexu erasoak gertatzen diren kasuetan, eta biktimak jasandako erasoak analizatu ondoren, erasoak berriro gerta daitekeela pentsarazi dezaketen egoerak edo elementuak daudenean eta neurria lortu nahi den babesaren proportzionala denean, biktimari telefono bat izateko aukera eskainiko zaio. Telefono horren bidez, poliziarekin harreman zuzena izango luke larrialdi kasuetarako.

Etxeko eta genero indarkeriako txostenean ezar daitezkeen babes neurriak eraginkor bihurtzeko asmoz, biktimen eta erasotzaileen argazkiak atera ahal izango dira. Horretarako, datu pertsonalak erabiltzeko baimena emateko akta aurkeztuko zaio biktimari, sina dezan. Helburua biktimak bere datuak eskusiboki eremu polizialean erabiltzeko baimena ematea da.

Datu horiek Ertzaintzako kideek eta udaltzainek bakarrik erabil ahal izango dituzte. Behin biktimak baimena eman ostean, erasotzailearen eta bere argazki eguneratuak eskatuko zaizkio. Espedienteko fitxa poliziala biktimen eta erasotzaileen argazkiekin eta oinarrizko datuekin inprimatu ahalko da, besteak beste sarritan bisitatzen dituzten lekuak, lanbidea, indarrean dauden neurri polizialak eta abar erantsita.

#### 4. ESPARRU JUDIZIALEKO JARDUNA <sup>(17)</sup>

Honako akordio honetan jasotako arloetan eskumena duten organo judizialek independentziaz eta legearen inperioari men eginez jokatuko dute. Egokia izanez gero, kontuan hartuko dira, era berean, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak bultzatu dituen neurriak; hau da, Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien Legearen eraginkortasuna bermatzeko koordinazio-protokoloa eta etxeko indarkeriaren biktimak babes-teko agindua; bereziki, ondorengo orientabideak:

**a) Biktimak osasun laguntza eskatzen duten lesioak baditu,** edo zauriak dituela uste bada, horiek agerikoak ez izan arren, epaitegiko titularrari berehala jakinaraziko zaio emakumearen egoera zein den eta, gainera, komeni da ondorengo ekintza hauek gauzatzea:

— Polizia judizialak dagokion mediku zerbitzura lagundu behar dio emakumeari. Sexu indarkeria edo gehiegikeria gertatu bada, hurbileneko ospitalera eraman behar da eta biktimari esango diote ez garbitzeko, arroparik ez aldatzeko eta aho bidezko erasoak gertatu bada, ez jateko eta ez edateko ezer. Erasoak Bilboko barruti judizialean gertatu bada, eta lesio larriak dauden larrialdietako kasuetan izan ezik, biktima Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak Zerbitzu Klinikora ere bidali ahal izango da, bertan 24 orduko zaintza egoten baita.

— Auzitegiko medikua osasun zentrorra joango da, frogak ziurtatzeko eta laginak jaso ahal izateko.

**b) Emakumeak osasun laguntzarik behar ez badu,** salaketa edo Babesteko Aginduaren eskaera leku pribatuan hartzea komeni da. Izan ere, biktimaren egoera emozional berezia eta egoera pertsonala kontuan hartuta, begirune bereziko tratua eta lehenetsun osoa eman behar zaio.

---

(17) Goiburua honetan adierazitakoa Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak argitaratutako ondorengo gida hauetan ezarritakoarekin osatu behar da: *Etxeko indarkeriatik sortutako arazo juridikoen inguruko txostenean* (2001eko martxoaren 21ean onartua) dagoen *Etxeko indarkeriaren aurka jarduteko gida praktikoa*; *Genero indarkeriaren aurrean babes osoa emateko neurriei* buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren *gida praktikoa*; eta *Genero indarkeriaren aurrean jarduerak judizialari buruzko irizpideen gida*.

Biktimari Prozedura Kriminaleko Legearen 544 artikuluan aurreikusitako Babesteko Agindua eskatzeko aukera badagoela jakinaraziko zaio eta, era berean, adieraziko zaio salaketa jartzeak eta Babesteko Agindua eskatzeak zein ondorio dituen. Horrez gain, adieraziko zaio Babesteko Aginduaren eskaera formalizatu edo salaketa jarri aurretik txandako abokatu baten eskutik doako aholkularitza jasotzeko eskubidea duela. Abokatu hori etxeko indarkeriaren eta/edo sexu erasoen biktimen gaian espezializatua izango da. Biktima aholkularitza jasotzeko prest baldin badago, epaitegiak horretarako behar diren kudeaketak egingo ditu eta biktimari jakinaraziko dio abokatua noiz iristea aurreikusita dagoen.

Salaketan gertakariari buruzko ahalik eta informazio gehien ematea aholkatzen da, behar diren autoak edo eginbideak pilatu ahal izateko, eta beste honako hauek ere jasotzeko: lehenagoko erasoak horrelakorik egon bada, tratu txarren maiztasuna, eta salatu bazituen non eta noiz aurkeztu zituen salaketak, seme-alabek ere jasan ote dituzten eta erasotzaileak armarik baduen edo ez.

Oso garrantzitsua da medikuak edo auzitegiko medikuak berehala mediku azterketa egitea. Medikuak dagokion txostena prestatuko du, eta gera daitezkeen lesio psikologikoen berri eman beharko du txosten horretan.

Komenigarria da, halaber, Lantalde Psikosozial Judizialei txosten psikologiko partziala egin dezaten eskatzea eta hala dagokionean, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuei eta/edo gizarte zerbitzuei txosten sozialak egiteko eskatzea.

Era berean, organo judizialek biktimari ekintzen eskaintza egingo diote eta informazioa emateko ohar bat emango diote eskaintzaren edukiak jakinarazteko. Ohar horretan, gainera, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen helbidea eta telefonoa adieraziko dira. Organo judizialek zerbitzu horiekin harremanetan jartzen lagunduko dute eta bertan emango diote biktimari bere eskubideen berri eta izapide eta prozedura judizialei buruzko informazioa, eta aholkularitza eskainiko diote, batez ere, honakoei buruz: erasotzailearengandik aldentzeko eskubidea, Babesteko Agindua eskatzea, banantze zibilerako behin-behineko neurriak eskatzea legeak ezarritako eskaerak betetzen diren kasuetan, Abokatuen Elkargoetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuen bidez doako justizia eta 35/1995 Legeak ezarritako laguntzak eskatzeko aukera. Era berean, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak emakumeari jakinaraziko dio erkidegoan kasu haue-tarako daude doako gizarte baliabideak zeintzuk diren (abegi zerbitzuak, laguntza juridiko eta psikologikoa jasotzeko programak, diru laguntzak, etab.) eta dagozkion gizarte zerbitzuekin harremanetan jartzen lagunduko diote baliabide horiek eskura izan ditzan.

Inputatuak aitortpena egin ostean, komeni da epaileak babes neurriak hartzeko aukera aztertzea, Prozedura Kriminaleko Legearen 13, 544 bis eta 544 ter artikuluen arabera, eta aurrez egoki iritzako txostenak eta irizpenak prestatuta. Instrukzioko epaileak aginpidea duen polizia-ri hartutako babes neurrien eta kautelazko neurrien berri emango die.

Era berean, komeni da ustezko erasotzailea Atxilotuari Laguntza emateko Zerbitzuarekin harremanetan jartzea, zerbitzu horrek kasu hori azter dezan. Gainera, Gizarteratzeko Laguntza Zerbitzuak, dagokion ebazpen judiziala betez, erasotzaileek tratamendua jasotzeko dauden programetara bideratuko du zigortua.

Komeni da epaileak, bere aginpideaz baliaturik, prozedura azkartzeko aukera kontuan hartzea, gertakarietan delituren bat gertatu bada. Bat-batean epaitu daitekeen falta baldin bada, polizia epaitegietak eguna jartzeko agenda informatikoari jarraituz lasterren dagoen lanegunean egingo ditu zitazioak. Epaketa azkarren kasuan eta eskumena emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegiari dagokionean, polizia Prozedura Kriminaleko Legearen 796. artikuluan zehazten diren zitazioak hurrengo lanegunean egin beharko ditu, organo judizial horren eguna jartzeko agenda informatikoa kontuan hartuta.

Jarduera ildo horien baitan, komenigarria da, halaber, epaitegiak edo auzitegiak falta epaitetan doako ofizioko abokatua izendatzea aztertzea, beste aldeetakoren bat epaiketara abokatuarekin baldin badao.

Babesteko Agindua aplikatzeak dakar biktimari etengabeko informazioa ematea inputatuaren egoera prozesalari eta kautelazko neurrien izaera eta indarraldiari buruz. Hori horrela, epaitegiek horretarako hartutako erabakien berri emango diete Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari, eta zerbitzu horrek jakinaraziko dio biktimari informazio hori.

Horrez gain, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak izango dira biktimari, hori Euskal Autonomi Erkidegoan bizi den kasuetan, erasotzailearen espetxeratze egoerari buruzko informazioa emateko ardura izango dutenak. Horretarako, erkidegoko espetxeek zerbitzu horiei jakinarazi egingo die autonomia erkidegoko organo judizialen batean horrelako delituren batengatik inputatuak izan den pertsonaren bat espetxetik irtendakoa.

Bere aldetik, Fiskaltzak ahalegin berezia egingo du indarkeria mota horren biktima izandakoek beren eskubideak zeintzuk diren argi eta modu errazean jakin dezaten; biktimei Babesteko Aginduaren berri eman diezaien; biktimei jakinaraz diezaien inputatuaren zigor, edo hala badagokio espetxe egoera zein den, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikuluko 8. eta 9. puntuetan ezarritakoaren arabera; eta biktimen datu pertsonalak babestuen izan daitezkeen; eta bereziki biktima administrazioaren menpekota den baliabideren batean bizi denean, espedientean agertzen den helbidea baliabidearena ez, baizik baliabide horrek gainetik duen erakundearen helbidea ager dadin.

## 5. ABOKATUEN ELKARGOEN JARDUNA

Euskal Autonomia Erkidegoko abokatuen hiru elkargoek ondorengo jarraibideak jarraitu beharko dituzte etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak gertatzen direnean:

Abokatuen elkargoek lehentasuna emango diote ofiziozko txanda bereziaren bidez abokatu izendatzeari. Abokatu horrek gerta litekeen etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktimari lagundu egin beharko diote. Halaber, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskariak izapidetzeari emango diote lehentasuna. Laguntza hori beharrezkoa izango da doako jardueretatik kanpo geratzen diren kasu guztietan, betiere, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluak sinatutako hitzarmenaren arabera. Hitzarmen horren helburua Euskadin emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktima izan direnei berehalako laguntza juridikoa ematea da.

Biktimak, aldi berean edo geroago, banantzeko edo dibortziatzeko prozedura bideratzeko ofiziozko txanda bidezko legelarien laguntza eskatzen badu, dagokion abokatu elkargoak beharrezko guztia egin behar du, tratu txarren ondorioz egindako prozedura penalean biktimak izandako abokatu bera izenda dezaten. Laguntza hori Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarilaren 10eko 1/1996 Legean aurreikusitako eskakizunak betetzen direnean bakarrik izango da doakoa. Ezinezkoa bada, Abokatuen Elkargoak bitartekoak jarri beharko ditu ongi koordinatuta ari daitezen prozedura penalean biktima defendatzeko izendatutako profesionala eta banantzeko, dibortziatzeko edo ahaidetasunari lotutako prozeduretan defendatzeko izendatzen duten profesionala (bai ofiziozko txandaz, bai bezeroak aukeratuta).

Akordio honek lantzen dituen gaietan eskumenak dituzten tokiko eta foru erakundeekin egin daitezkeen elkarlanei kalterik egin gabe, hiru probintzietako Abokatuen elkargoek, Eusko Jaurlearitzako justizia gaietan eskumena duen Sailarekin, ofiziozko abokatuak izendatzeko txanda bereziak –prestakuntza berezia duten profesionalaz osatua– behar bezala funtzionatzeko bitarteko guztiak jarriko dituzte. Bitarteko horiek beharrezkoak izango dira Akordio honek gai duen indarkeriaren ondoriozko prozesu penal eta/edo zibilak aurrera eramateko.

Biktimari, polizia egoitza batean edo epaitegian egonda, salaketa jarri edo babesteko agindua eskatu nahi duenean, edota gizarte zerbitzuetan egonik salaketa jartzeak edo Babesteko agindua ezartzeko eskatzeak dakartzan ondorioei buruzko informazioa jaso nahi duenean, abokatu baten eskutik aholkularitza doan jasotzeko eskubidearen berri emango zaio. Aholkularitza eskainiko dion abokatu txandakoa izango da, etxeko indarkeriaren eta/edo sexu erasoen biktimen alde lan egiten duena.

Biktimak aholkularitza jaso nahi duela adierazten badu, polizia etxetik, epaitegitik edo gizarte zerbitzuetatik deituko da emakumeen aurkako indarkeria, etxeko indarkeria eta sexu erasoen biktima direnentzako laguntza espezifikoa ematen duten zerbitzura.



Abokatuen laguntza juridikoa zuzenekoak izango da eta polizia-etxean edo epaitegian emango da bertan eskatzen den kasuetan. Gizarte zerbitzuetatik eskatzen denean, berriz, oro har abokatuaren laneko bulegoan edo laguntza eskatzen duen pertsonarekin adostutako antzeko tokiren batean emango da.

Espezializatutako laguntza juridikoa doakoa izango da emakumearen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edo sexu askatasunaren aurkako delituren baten biktima izandako guztientzat eta honakoak sartuko dira laguntza horren baitan:

- Salaketa jarri aurretik edo babesteko aginduaren eskaera egin aurretik zuzeneko aholkularitza, polizia etxetik, epaitegitik edo gizarte zerbitzuetatik jasotako eskaerari erantzunez.
- Salaketa jartzeko eta babesteko aginduaren eskaera egiteko abokatuaren laguntza.
- Hala dagokionean, babesteko aginduaren neurria hartzeko agerraldian abokatuaren laguntza eta baita epaiketa azkarrean ere, agerraldian bertan edo ondorengo egunetan egiten den kasuetan.

Hala dagokionean, doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen aitorpena ahalbidetzeko helburuarekin, indarrean dagoen araudiari jarraiki, abokatuak biktimari lagundu egingo dio dagokion eskaera egiten.

Jasandako indarkeriaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortu diren prozesu guztietan abokatuak egin beharreko gainerako jarduerak ere doakoak izan daitezten, biktimek nahiko baliabiderik ez dutela egiaztatu beharko dute, eta horretarako, doako justizia izateko eskaera egin eta onartu egin beharko zaie eskaera. Izapideak dagokien Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoko Zerbitzuan egin beharko dituzte, Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legeari jarraiki.

Biktimak doako justizia izateko izapideak egiten ez baditu, edota eskaera egin arren dagokion erakundeak eskaera atzera botatzen badu (Doako Justiziaren Batzordea edo epaitegia, hala dagokionean), abokatuak egindako lanagatik ordainsariak eskatu ahal izango ditu, lehen aipatutako zerbitzu espezializatuaren zerbitzuen kasuan izan ezik, horiek doakoak izango baitira beti.

## **6. GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUNA**

Emakume batek akordio honetan aipatzen diren delituren baten biktima izan eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein Oinarrizko Gizarte Zerbitzutara jotzen duenean, honako urratsak emango dira:

**a) Biktimak osasun laguntza eskatzen duten lesiorik badu,** edo nahiz eta ez ikusi zauriak dituela uste bada, dagokion medikuarengana eraman beharko da, beharrezkoa baldin bada. Era berean, lesioen parte ofiziala eskatzeko adieraziko zaio, horrela, salaketa egitean aurkeztu ahal izateko. Emakumearen segurtasuna edo osotasun fisikoa arriskuan egongo baltz, poliziaren laguntza eskatuko da.

Sexu erasoa gertatu berria bada, SOS Deiak jakinaren gainean jarri beharko da, beharrezko gestioak abian jartzeko (anbulantzia bidaltzea, poliziar deitzea...). Ondoren, biktima gertuen dagoen ospitaleko larrialdi zerbitzuetara eraman beharko da eta ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esan beharko zaio, eta aho bidezko erasorik gertatu bazaio, ez jateko eta ez edateko, etorkizuneko prozesu judizial baterako funtsezkoak izan daitezkeen frogak deusezta ez daitezzen. Erasoa Bilboko barruti judizialean gertatzen bada, eta lesio larriak dauden larrialdietako kasuetan izan ezik, biktima Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko zerbitzu klinikora ere bidali ahal izango da, bertan 24 orduko zaintza zerbitzua egoten baita.

Biktima ospitalera eramanez gero, Oinarrizko Gizarte Sozialak alde aurretik ospitalera deituko du biktima hara daramatela jakinarazi eta ospitalean arreta eskaintzeko prestaketak egin has daitezzen. Ospitaleak egingo ditu auzitegiko medikua bertaratzeko gestioak biktimari mediku azterketa egiteko eta laginak hartzeko. Edonola ere, auzitegiko medikuari gertakariari buruz eskura dauden datu guztien berri emango zaio.

**b) Biktimak osasun laguntzarik behar ez badu,** arreta egokia eta lehentasunezkoa emango zaizkio, bere egoera emozional berezia kontuan hartuz, betiere.

Emakumearen segurtasuna edo osotasun fisikoa arriskuan badago, SOS Deiak zerbitzura, Ertzaintzara edo Udaltzaingora deitu beharko da, laguntza eske. Poliziar Oinarrizko Gizarte Zerbitzura edo biktima babesteko toki egokienera joateko eskatu beharko zaio.

Lehenengo elkarrizketaren helburua biktimari laguntzea izango da, eskura dituen baliabiak eta arreta jakinaraztea eta arazoak izan ditzakeen irtenbideak azaltzea. Bai berak, bai bere guraso ahalaren pean edo zaintza eta babespean dituen adingabeek gizarte laguntza osoa jasotzeko eskubidea dutela ere azalduko zaio. Jakinaraziko zaio bere segurtasuna, eta hala dagokionean baita seme-alabena ere, zaintzeko eskura dauden bitarteko guztiak bere eskura jarriko direla.

Laguntza juridikoa emateko zerbitzuetako laguntza kualifikatuaz gainera, gizarte zerbitzuetako langileek biktimari bere eskubideei eta egin beharreko prozedura judizialei eta izapideei buruzko oinarrizko informazioa eta aholkuak emango dizkie, eta bereziki, honako eskubide hauek dituela esango die: gertatutakoa poliziaren aurrean, emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiaren aurrean ala guardiako epaitegiaren aurrean salatzeko eskubidea, salaketa jartzeari edo Babesteko Agindua eskatzeari buruzko doako aholkularitza juridiko espezializatua jasotzeko eskubidea, erasotzailea beragandik urruntzea eskatzeko eskubidea, banantze

zibilerako behin-behinekoak bakarrik diren neurriak eskatzeko eskubidea legezko eskakizunak betetzen badira, Abokatuen Elkargoetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuetatik doako justizia jasotzeko eskubidea eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren bidez 35/1995 Legeak jasotzen dituen laguntzak eskatzeko aukera.

Biktimari jakinaraziko zaio, halaber, aukera duela eta komeni dela gainera babesteko aginduaren eskaera egitea. Horrela, epaitegiak, egoki irizten badio, biktima babesteko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek izan daitezke maila penalekoak (behin-behineko espetxe zigorra, erasotzailea aldentzeko agindua...), edo zibilekoak (erasotzaileari etxebizitza erabiltzeko debekua jartzea, seme-alabekiko dituen eskubideak murriztea, mantenu pentsioa ordaindu beharra...). Hala dagokionean, zerbitzu sozialei dagozkion laguntzak eskatzea ere komeni da. Biktimari jakinaraziko zaio babesteko aginduak salaketa izaera duela, eta legeak agindu horren eskaera gizarte zerbitzuetan egitea ahalbidetzen duen arren, biktimari gomendatu eta azalduko zaio agindu hori poliziari eskatzeak duen garrantzia. Izan ere, poliziari eskatuz gero, hainbat izapide egin beharrik ez du izango eta agindua lehenago ematea ahalbidetuko du horrek (biktimak eta erasotzaileak epaitegian agerraldia egin eta gehienez 72 orduko epean). Biktimari, horrez gain, jakinaraziko zaio babesteko agindua eskatzeko garaian behar bezalako aholkularitza jasotzeak duen garrantzia; horretarako, abokatuen elkargoetako zerbitzu espezializatuari laguntza juridikoa eskatzeko aukera duela adieraziko zaio. Laguntza hori gizarte zerbitzuetatik, poliziaren komisariatik edo epaitegitik eska daiteke.

Gomendio hori eman arren, biktimak babesteko aginduaren eskaera gizarte zerbitzuetatik egitea nahiago badu, berriro ere gogoraraziko zaio abokatuen laguntza zerbitzuaz baliatzea komeni dela. Gizarte langilea zerbitzuarekin harremanetan jarriko da horretarako. Biktimak zerbitzu hori erabiltzeari uko egiten badio, gizarte laguntzaileak lagunduko dio emakumeari babesteko aginduaren eskaera egiten. Eskaera horren eredia gizarte zerbitzu guztietan egongo da eskura. Babesteko aginduaren eskaera orria betetakoan, gizarte langileak kopia bat eskatzaileari emango dio, beste bat beretzat hartuko du eta jatorrizkoa berehala zaintzako epaitegira bidali beharko du.

Babesteko agindua Kode Penalaren 173.2 artikulua aitpatzen dituen pertsonen (18) ere eska dezakete, baldin eta horretarako gaitasuna badute eta eskabidea eragiten duen gertaerekin loturarik ez badute. Kasu horietan ere, eskatzaileari lagundu egingo zaio babesteko aginduaren eskaera betetzen eta aurreko paragrafoaren azken puntuan ezarritakoaren arabera jotzeko da, betiere, babesteko agindua eskatzen duen pertsonak eskaera hori poliziaren egoitzan edo epaitegian egiteari uko egiten badio.

---

18) Biktimarekin hemen behean azaltzen diren ahaidetasun motaren bat dutenek ere eska dezakete: ezkontidea edo biktimarekin afektibotasun harreman egonkorra duen edo izan duen pertsona, ezkontidearen edo biktimaren bizikidearen seme-alabak, tutoretzapekoak, aurreko ahaideak edo biktimarekin bizi diren eta ezgaitasunak dituzten pertsonak edo biktimaren guraso ahalarren, tutoretzaren, kuradoretzaren, harreraren edo egitatezko zaintzaren pean dauden pertsonak.

Biktimak gertatutakoa salatzerik eta babes agindua eskatzerik nahi ez badu, zera azalduko zaio, salatzera eta agindua eskatzera animatzearren: salaketa jartzea, eskubidea ez ezik, jasaten ari den harreman bortitzarekin amaitzeko eta Justizia Administrazioak dituen babes mekanismoak eskuratzeko modua dela (erasotzailearen urruntze agindua, poliziaren babesa, aitak semearekiko edo alabarekiko dituen eskubideak bertan behera uztea, etxebizitzaren erabilpena, elikadura pentsioa eta abar). Era berean, profesionalak legez gertatutakoa epaitegiei jakinaraztera derrigortuta daudela azalduko zaio biktimari.

Biktimak salaketarik ez jartzea erabakitzen duen kasuetan, eta hori kasua ez izanik ere egoeki irizten denean, gizarte zerbitzuek epaitegiari premiazkoak iruditzen zaizkien neurriak hartzeko eskatu ahal izango diote, Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 19.4 artikuluari jarraiki. Eskaera horiek fiskaltzaren bidez bideratuko dira eta fiskaltzarena joko dute aipatutako zerbitzuek eskaerak gauzatzeko.

Informazioa IV. eta V. eranskinetan adierazitako ereduen arabera jasoko da. Gizarte langileak, edonola ere, egoera bakoitzari egokitutako galderak egiteko askatasuna izango du. III. eranskinean agertzen den bidalketa txostenaren eredia ere erabiliko da, hain zuzen ere emakumea beste instantzia batzuetara bideratzen denean, harrera egiten dion erakundeak gizarte zerbitzuetako langilearekin harremanetan jartzeko modua izan dezan.

Era berean, emakumeari erkidegoan tratatu txar eta sexu erasoak gertatzen diren egoeretarako eskaintzen diren baliabideen berri emango zaio (juridikoak, psikologikoak, ekonomikoak, gizarte hezitzaileak, alojamendu, lana, etxebizitza eta abarren ingurukoak), eta hala dagokionean, emakumeak baliabide horiek eskuratzeko bidea egingo da, beharrezkoa denean, emakumea zerbitzu espezializatura edo bestelako zerbitzuetara bideratuz.

Emakumeari gogoraziko zaio baliabide horiek erabiltzea garrantzitsua dela egoera gainditzeko, batez ere arreta psikologikoa eskaintzeko programa espezializatuen garrantzia azpimarratuko da. Uneoro emakumearen autonomia eta autoestimua indartzeko mekanismoak sustatuko dira eta baita biktimek erasotzaileen erruz jasaten duten isolamendua ekiditeko neurriak ere.

Inguruan indarkeriaren biktima izan diren emakumeekin lan egiten duten elkarterik balego, eta kontuan hartuta elkarte horiek babesa emateko egin dezaketen lanaren garrantzia, biktimari elkarte horiekin harremanetan jartzen lagunduko zaio berak hala nahi izanez gero.

Gizarte zerbitzuetako profesionalak kasuari jarraipena egingo dio prozesu osoan zehar eta lan hori biktimei arreta eskaintzeko zerbitzu eta programa ezberdinen lanarekin koordinatuko du emakumeari eta bere seme-alabei bizimodu normalizatua berreraikitzen laguntze aldera.

## 7. HEZIKETAREN ARLOKO JARDUNA

a) Jakiten bada, edo susmo sendorik badago, Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa zentroetako ikasleren batek tratu txarrak eman edo sexu indarkeria baliatzen duela neska ikasle baten aurka, oraingo edo lehengo harreman baten harira, *Berdinen arteko tratu txarren aurrean heziketa zentroentzako ekintzen gidan* jasotako jarduera protokoloan ezarritakoa aplikatuko da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egin du gida. Bereziki, zentroko zuzendaritzak edo hark kasuari jarraipena egiteko izendatutako pertsonak honako urratsak jarraituko dituzte:

**1. Informazioa jasotzea.** Identifikazio datuak jasoko dira zentroari, kasu bakoitzean inplikata dauden ikasleei eta eraso motari eta horren larritasunari buruz

**2. Kasuaren aurreazterketa eta urgentziatzko esku-hartzeak.** Orientatzailea, aholkularia eta/edo kasu bakoitzerako beharrezko esku-hartzea aztertzeke eta baloratzeko egokienak iruditzen zaizkion pertsonak deituko ditu zuzendaritza taldeak. Egoki irizitako neurriak hartuko dira eraso jasandako neska ikaslearen segurtasuna berehala bermatzeko, eta erasotzaileari neurri zuzentzaileak ezarriko zaizkio.

**3. Familiei lehenengo jakinarazpena.** Banakako elkarrizketa egiteko deituko zaie, alde bate-tik, neska ikasleari eta bere familiari, eta bestetik, ikasle erasotzaileari eta bere familiari. Honakoak izango dira elkarrizketen helburuak: gertatutakoaren berri ematea eta informazioa biltzea; familiek zer gertatu den ba ote dakiten jakitea eta gertatutakoaren inguruan hartu dituzten neurriak zeintzuk diren jakitea; hartu diren edo hartuko diren urgentziatzko neurrien berri ematea eta horiei buruz duten iritzia eta/edo egin ditzaketek ekarpenak jasotzea; eta salaketa jartzearen edo jasotzearen aukera jakinaraztea, egindakoa delitu izan daitekeela adierazten duen arrastorik balego.

**4. Informazioa osatzea, egiaztatzea eta aztertea.** Lehendik dagoen informazioa osatu egingo da egoki irizitako galdera sorta, elkarrizketa edo bestelako prozeduren bidez. Horiek guztiak, ahalik eta diskrezio handienarekin egingo dira.

**5. Eskuratutako informazioa ikusita, *berdinen arteko tratu txarrak izan ote diren erabakitzea, hezkuntzako ondorioetarako.***

**6. Hezkuntzako Ikuskatzailetzari gertatutakoa jakinaraztea.** Berdinen arteko tratu txarren kasu bat gertatu dela antzematen denean, Hezkuntzako Ikuskatzailetzari idatziz jakinarazi behar zaio salatutako gertakariak zeintzuk diren eta zer neurri hartu diren. Era berean, poliziaren edo epailearen aurrean salaketarik jarri bada edo Arartekoari kexa aurkeztu bazaio, horren txosten idatzia ere bidaliko da Hezkuntzako Ikuskatzailetzara. Berdinen arteko tratu txarra ez dela izan erabakitzen den kasuetan ere, Hezkuntzako Ikuskatzailetzari gertatutakoaren berri ematea gomendatzen da. Gertakariei jarritako kalifikazioa eta, hala dagokionean, hartutako neurriak zeintzuk diren ere adieraziko da.

**7. Ekintza plana.** Zentroak Ekintza Plan bat prestatuko du eta beharrezkoa dela iritziz gero, Berritzeguneari eta Hezkuntzako Ikuskatzailetzari aholkua eska diezaieke. Planean idatziz jasoko dira zentroak hartu beharreko neurriak; ustezko biktima eta erasotzaileari, familiei, gainera-

ko ikasleei eta irakasleei dagozkien neurriak, hain zuzen, eta kasuaren larritasunaren arabera, gizarte, osasun erakunde edo erakunde judizial batzuei igorritako komunikazioa ere bai.

**8. Inplikaturako familiei Ekintza Planean proposaturako neurriak jakinaraztea.**

Inplikaturako familiei ezagutzera emango zaizkie gertatutakoaren eraginpeko ikasleekin hartutako neurri indibidualak, baita antolakuntza eta prebentziozko neurriak ere.

**9. Hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea.**


Zentroko zuzendaritzak hartuko du Ekintza Planean aurreikusitako neurriak gauzatzearen ardura. Aldizka zentroaren erreferentziako ikuskatzaileari neurriak zenbateraino betetzen ari diren jakinaraziko dio eta inplikaturako ikasleen gizarte heziketako egoeraren nondik norakoak ere jakinaraziko dizkio.

b) Jakiten bada, edo susmo sendorik badago, Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa zentroetako langileren batek tratatu txarrak ematen edo sexu indarkeria baliatzen duela neska ikasle baten aurka, zentroko zuzendaritza taldeari gertatutakoaren berri emango zaio eta zuzendaritza taldeak, berehala, Hezkuntzako Ikuskatzailetzari jakinaraziko dio. Hori guztia, kasu bakoitzari dagozkion diziplinazko neurri eta neurri judizialei kalterik egin gabe.

c) Hezkuntza komunitateko norbaitek jakiten badu edo susmo sendorik badu ikasleren bati senideren batek edo Euskal Autonomia Elkarteko ikastetxeren bateko langilea ez den beste pertsonaren batek tratatu txarra ematen diola edo bere aurka sexu indarkeria baliatzen dutela, zentroko zuzendaritzari jakinaraziko dio berehala. Zuzendaritzak, egoera aztertu eta delitu zantzuak daudela irudituz gero, gizarte zerbitzuei, Fiskaltzari eta Hezkuntzako Ikuskatzailetzari gertatutakoaren berri emango dio.

d) Hezkuntza komunitateko norbaitek jakiten badu edo susmo sendorik badu ikasleren baten amari etxean tratatu txarrak ematen dizkiotela edo bere aurka sexu indarkeria erabiltzen dutela, zentroko zuzendaritzari jakinaraziko dio berehala. Zuzendaritzak, egoera aztertu eta delitu zantzuak daudela irudituz gero, gizarte zerbitzuei, Fiskaltzari eta Hezkuntzako Ikuskatzailetzari gertatutakoaren berri emango dio.

Aurreko a), b), c) eta d) ataletan hain zuzen, ezarritakoarekin bat etorrituz, tratatu txarrak edo sexu indarkeria gertatzen direla jakindakoan, biktimei edo, hala dagokionean, horien familiei informazioa emango zaie biktima diren aldetik hezkuntzaren esparruan jasotzeko eskubidea duten zerbitzu eta prestazioei buruz.



**E**RANSKINAK





**I. ERANSKINA:**  
**EPAITEGIRA BIDALTZEKO IDAZKI EREDUA**  
**(OSASUN ESPARRUA)**

Nik, .....  
jaunak/andreak, ..... mediku elkargoko kide naize-  
nak, ..... zenbakia dudala,  
.....  
..... lan egiten  
dudanak (zentroa eta lantokia)

**ZERA JAKINARAZTEN DIOT JAUN/ANDRE TXIT PRESTU HORRI:** gaur,  
..... (e)a(ta)n, .....  
.....  
..... (e)(a)n (kontsultategia, osasun zentroa edo ospitalea, zentroaren  
izena, lantokia, herria eta kalea) .....  
.....jauna/andrea artatu dudala; ..... urte dauzka;  
..... (e)(a)n bizi da (kalea eta zenbakia);  
..... dira posta kodea eta herria;  
..... probintzian dago; .....  
telefonoa dauka, eta berari ustez eman dizkioten tratu txarren inguruko osasun-txostena **BI-**  
**DALI** dizut.

**Data eta sinadura**

**EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIA ALA GUARDIAKO INSTRUKZIO**  
**EPAITEGIA**

## II. ERANSKINA:

### LESIOEI BURUZKO MEDIKU PARTEAREN EREDUA

#### 1) BIKTIMAREN DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak: .....

Sexua:    emakumea     gizona

Jaioteguna: ..... / ..... / .....

Legezko egoera: .....

Helbidea (19): .....

Harremanetarako telefonoa (20): .....

#### 2) LESIOEN ERAGILEA (biktimak adierazitakoaren arabera)

.....

#### 3) ARTATZEKO BEHARRA ERAGIN DUTEN GERTAEREN AZALPENA (biktimak adierazitakoaren arabera, erasoia zer egunetan, ordutan eta lekutan gertatu den eta, tratu txarra eman dionela antzemanaz gero, fisikoa, psikikoa edo beste mota batekoa den zehaztu)

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

#### 4) AURREKARI PERTSONAL GARRANTZITSUAK (lesioekin lotutakoak)

.....

.....

.....

---

(19) Biktimak bizilekua aldatu nahi badu, ez da jasoko helbide berria, baizik eta momentu honetan bizi denekoa. Era berean, jasotzen den bizilekua ez du berea zertan izan, beste edozein izan daiteke baldin eta berarekin harremanetan jartzeko balio badu.

(20) Jasotzen den telefonoa ez du bere bizilekuarena zertan izan, beste edozein izan daiteke baldin eta berarekin harremanetan jartzeko balio badu.

.....  
.....  
.....  
.....

**5) AZTERKETA FISIKOA** (lesioen deskribapena –itxura, tamaina edo neurriak, kokapena eta koloreari buruzko deskribapen datuak; argazkiak ateratzea komeni da, biktimak baimena emanaz gero– eta gutxi gorabehera horiek zer egunetan gertatu diren).

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**6) AZTERKETA GINEKOLOGIKOA** (eginez gero)

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**7) UNE HORRETAKO EGOERA EMOZIONALA**

.....  
